

Nafarkaria

• ostirala • 1999ko ekainaren 4a


Egunkaria

Gehigarri honetan

Baztan • Balleko mendietan barrena ibilaldia eginen da etzi.

Allen Josephs. «Euskal Herria gelditzen zen azken toki benetakoa zela zioen Hemingwayk».

Iritzi kontrajarriak eta informazio eskasa



• MIKEL SAIZ

Nafarroako Gobernuak eta Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiak berriki Pauen aurkeztutako Iruñea-Baiona autobidearen proiektuak hainbat iritzi sortu ditu Hegoaldean zein Iparraldean ustez bidea eginen den herrietan. Iruñea eta Baiona lotzeko bidearen proiektuaren inguruan LEIA taldeak zein herrietako auzapez askok informazio falta salatu dute.

Baztan ●

Baztango mendietan barrena

Gartzaindik Gartzainera bitarteko ibilaldia egingen dute igandean, mendiz

Baztango Mendigoizaleak Elkarteak seigarren urtez jarraian mendi ibilaldia antolatu du etziko. Ibilaldiak orotara 32 kilometro izango ditu, eta Baztango mendi kasko ugaritan barrena iraganen da.



Baztango mendiak mendigoizalez beteko dira etzi.

● ARTXIBOKOA

AURTEN GARTZAINGO herrian hasi eta Gartzainen akabatuko da ibilaldia, urtero balleko herrietan barrena aritu nahi izaten baitute baztandarrek. Hasierako zatia, ibilbidearen erditsu aldera bitarte, gehienbat maldan goiti iraganen da, eta ondoren gehiago tartekatuko dira malda beheetiko bideak eta ordeak. Gartzaindik 235 metrotik abiatuko dira, eta Zudebenea, Meaka eta Trepan goiti joanda, Erdiz mendia izanen dute lehenbiziko kaskoa, 1.075 metrora. Hura jaitsi orduko Okoro bidean paratuko dira mendigoizaleak, 1.280 metrora iritsiko dira, eguneko gailurrik altue-

nera. Handik Azaldegira jaitziko dira, Belaun, Askota-Beartzuneino iristeko, eta Bentako-Bordara goituko dira, eta handik Gartzaineraino jaitziko.

Lehenak: goizeko zazpietan

Lehendabiziko ibiltariak goizeko 7:00etan aterako dira Gartzaindik, eta bide osoan zehar behar dituzten zerbi-

tzuak aurkituko dituzte, bai osasun postuak eta jan-edaneak ere. Iristerakoan, oroigarri gisa, diploma bana banatuko zaie parte hartzaileei, baina ez da inolako sailkapenik egingen. Parte hartzaileek 700 pezeta ordaindu beharko dituzte.

Ibilbide osoa ongi seinalatutik egonen da, eta hortik aitzinera izena ematen duten hurrenkeran egonen da bukae-

rara iristeko aukera eta abilezia. Beraz, antolatzaileek ez dute inolako erantzukizunik hartuko istripurik gertatuz gero. Aitzineko urteetan bezala, eta inguruan azken asteotan izan diren gainerako mendi ibilaldietan bezala, mendigoizale aitzinera espero dituzte aurten Baztango ibilaldi honetan.

→ Jon Abril

Iruñerria

Iruñeko Mugen III. Ibilbidea egingen da etzi

ETZIKO IRUÑEKO MUGEN III. Ibilbidea antolatu du IKAK, helduen euskalduntze eta alfabetatzean aritzen den elkarteak. Kultura eta kirola uztartu nahirik, paseo polit bat eman bidenabar, Iruñeko bazterrak, bidexkak eta izen zaharrak ezagutu eta gordetzea da antolatzaileen helburua. Joan den urtean hainbat leku izen ezagutzeko aukera izan zuten partehartzaileek: Iturriapurria, Bizkarmendia, Morea, Mugazuri, Iturrondo, Zumadia, Aizegerria, Sandua eta Axarizulo, besteak beste.

Ibilaldian parte hartuko dutenak 08:00etan aterako dira, Lagun Artea elkartetik (Burlatako bide zaharreko muga). Ezkaba mendira igo eta gero, Argako ibalertzetik barna Arantzadi eta Miluze parajeak iraganen dituzte. Barañain utzi eta hasitako lekura itzuliko dira ibiltariak. Azellako bidea hartuz, Sarioruntz joanen dira eta, Lezkairuko sototik igaro ondotik, Lagun Artera iritsiko dira. Magdalenan bazkaria egingen dute, zubi zaharren ondoan. Parte hartu nahi duenak Arturo Campion euskaltegira deitu behar du, edo IKAKo beste euskaltegetara. Gosaria eta bazkaria 1.200 pezetan izanen da.

→ Irene Arrizurieta

zubian barna

BINGEN AMADOZ



ideiak saltzeko garaian bete-betean sarturik gabil-tza. Itxurak egitekoa, gezur galantak esatekoa, norberak bere burua goraiatu eta besteen gainera txarrak leporatzekoa, boto emalea erakartzeko edozein gauza baliagarri den egunetan gaude. Nik esanen nuke, batez ere inauguratzeko denboraldia dela hauxe eta baita arestian pasatakoa ere. Liburuaren argitalpen ugari azoka egunetarako gordetzen diren bezelaxe, egin beharreko gauzak bukatu ohi dira hauteskunde-garaian. Berdin da, bestalde, aspaldian bukatuta baldin badaude ere.

- Zer dago inauguratu gabe?
- Ba inauguratu dezagun.
- Gobernukideen konsigna bihurtzen da egunotan.
- Begira jendea: Hauxe egin dugu, eta hau eta beste hau, baita beste hura ere.

Sinistarazi nahi digute nonbait horiek denak aginteari eskertu beharrezkoak direla, haien eginbeharra izanen ez balitz bezala, gure dirua erabili ez balute bezala.

Inaugurazioak

Jakina, askok ez dute hiritar libre edo adimen garatu-koak nahi, eskerronekoak baizik, gatibu eta beraz «zintzoak».

Inaugurazioetan bereziki nabarmentzen ari da gober-nuko mutilzaharra. Bere ile txuri, ederki orraztuak pa-seiatzen aterata ditu hainbat eta hainbat tokitara. Egin-dakoa eginik, beste toki askotan aginte-kargurik gabe egon beharko lukeen hori ez da geldirik egoten. Aktua-zio bat edo beste guztiz parregarria izan du. Lehen orri-ko titularrak merezi izan ditu hutsean geratutako bere inaugurazio batek. Sakanako autobian aspaldiko partez jarrita zeuden sorospen zerbitzuko postuak, lotsa gutxi-rekin inauguratzera joan eta ez zuten funtzionatu. Nor-baiti doluminak ematera joanik zegoela ematen zuen bere gobernuaren aldeko egunkariko azalean plazara-turiko argazkian.

Beste toki batzuetara itxurak egitera joan da, besterik gabe, ezer inauguratzerik ez zegoelako agian. Bere bu-rua erakustera.

Ez nuen ezagutzen bere uxuezaletasuna. Inork ez, baina batere korbatarik ikusten ez den Uxueko Erromer-ian, berea ongi nabarmentzen zen Kalixtorenarekin ba-tera ikusleen artean, lehendabiziko lerroan denek ikus zezaten.

Palaciosi ongi datorkio esaera zaharra. Esaidazu zertaz harrotzen zaren eta nik esanen dizut zeintzuk di-ren zure gabeziak.

Zertaz harrotzen da, ba, gure «senoritoa»? Berriki, berriz ere eroritako Belateko tunelaren sapaia harro-tzekoa al da? Duela egun gutxi jakitera eman zaigun ltoizko urtegiaren arriskuaz pozten al da? Berea ezik, legebiltzarreko talde guztiek irrati baimenak banatze-rakoan izan zuen jokabidea gaitzetsi ondoren ez al zaio aurpegia gorritu bederen? Eta gure trenbide bakarraren segurtasun neurriak? Eta Noaingo airepor-tuaren hegazkin-loturen gorabeherak? Eta Tuter eta Madril arteko autobidearen proiektua zertan geratu da?

Lizarra ●

'Art deco'-aren maisua

Gustavo de Maeztu museoak Rafael Penagos artistaren lana jaso du

Rafael de Penagos (1889-1954) izenburuean, Gustavo de Maeztu museoak *art deco*-aren maisu eta ordezkari nagusia izan zen artista horren lanak bildu ditu hilaren 27ra bitartean.



Emakumearen irudi berria ekarri zuen Penagosek. ● ARTXIBOKOA

ERRETRATU, ARGAZKI, ILUSTRAZIO, ipuin, kartel, marrazki, komiki eta abarrek osatzen dute egunotan Lizarran ikus daitekeen erakusketa berezi hori. Lizarrako Gustavo de Maeztu museoak mendearen hasieran izan zen marrazkigile eta kartelgile ospetsuenetako baten lanak bildu ditu. Erakusketarako Rafael Penagos maisuaren ibilbide artistikoa jaso du; izan ere, artistak bere bizitza osoan arlo ezberdinetan egin zituen marrazki orijinalak bildu dira erakusketan. Oro har, haren marrazkiak 20ko hamarkadako modernitatearen oinarritzko lekukoak izan ziren.

Rafael Penagos 1889. urtean jaio zen, Madrilen. Gazte-gazterik hasi zen margotzen, eta marinel izan nahi bazuen

ere, betidanik aritu izan zen margotzen. Bere ibilbide artistikoan hainbat eta hainbat sari eta onspen jaso zituen, bai Espainian eta baita beste herrialde batzuetan ere. Penagosek esti-

lo berezia zuen, pertsonala oso, eta, ezberrik gabe, XX. mendeko artisten artean margolari garrantzitsua izan zen.

Rafael Penagos artistak lan berritzailea egin zuen bai

irudien munduan bai karte-lenean. Lerroei azkartasun berezia eman zien, marra sendoak eta kementsuak eginez. Koloreei ere beste indar bat eman zien, eta ordu arte ezezagunak ziren kontrasteak lortu zituen. Garai haietan Espainian garrantzitsuak ziren hainbat aldizkarietan lan egin zuen marrazkigile gisa: *Blanco y negro*-n eta *La Esfera*-n, besteak beste. Halaber, zenbait libururen azalak ilustratu zituen. Rafael Penagosek Madrilgo kafe batean izaten ziren hitzaldietan parte hartu ohu zuen garaioko intelektualekin batera. Hala, Ricardo Baroja eta Antonio Machafi ezagutu zituen. 1925ean Parisera abiatu zen ikasketak hobetzeko asmoz, eta han Ortega Gasset ezagutu zuen. Geroxeago, sari garrantzitsu bat jaso zuen Frantzian. Bere bizitzako azken urteetan marrazki irakaslea izan zen zenbait hiritan, ba eta Hego Amerikan ere. Artistak honek batez ere emakumea landu zuen bere lanetan. Emakumearen irudi berri bat eman zuen, garai hartan *Eba moderna* bezala ezaguna egin zen emakumea. Emakumearen izaera berri bat eman zuen ezagutzera: argala, fina, erretzen zuena, kirolzalea eta sensuala.

→ Kristina Berasain



herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Sakanako folklorea ikertzen

GUAIXE aldizkariako azken zenbakian, Maider Goñi etxarriarrari egin dio elkarrizketa Amaia Amilibia kazetariak. Maider Goñi Sakanako folklorea ikertzen ari da, Eusko Ikaskuntzak eta Altsasuko Udalak emandako beka baten bitartez. Iaz hasi zen herri elkarrizketak eta dokumentazioa biltzen eta aurtengo udan ikerketa bukatu du. Data zehazteke dago, baina liburu bat argitaratuko dute Goñiren lana biltzeko.

Guaixen, aurkitutako ohiturarik bitxiari buruz mintzatu da Maider Goñi: «Urdiainen San Silbestre egunean egiten dutena da. Urtezahar eguneko uraren erritoak

zentzurik sakonena duen ohituretako bat da Sakanan. Gainontzeko ohiturek, berriz, ez dute horrenbesteko pisurik, azalpen logikoagoa dute. Ihoteak, adibidez, askatasun adierazpen bat bezala uler ditzakegu. Urdiango uraren erritoari buruz Jose Maria Satrustegi asko mintzatu da. Ohitura honen zentzua zera da: bizitza urtero berritzea. Gainera, oso unibertsala da, Europan barna bizitzaren zikloa berritzeko antzeko ohiturak gordetzen dira».

Hainbat ohitura berreskuratzeko egiten ari diren ahaleginak aipatzen ditu Goñik, bestalde, elkarrizketan: «Garai olean gaudela uste dut. Ohiturak berreskuratzearan

garrantziaz jabetzen ari dira. Agian, modan dagoelako izan daiteke. Lehenik eta behin zer urtetako ohitura berreskuratu nahi dugun erabaki beharko genuke. Ohiturak urtetik urtera moldatuz joan direlako. Dokumentazioa egonez gero, noski, begiratu beharra dago eta adineko jendeari elkarrizketa sakonak egin behar zaizkio. Eta, azkenik, folklorea adituak diren ikerlarietara tartekatzea ona litzateke. Nire ustez, zilegi da ohiturak pixka bat moldatzea. Ohitura edo ospakizunen helburu garrantzitsuenetako bat da jendeak ongi igarotzea eta ahalik eta parte hartze handiena izan dadin».

Heriotzaren haragitegian

Etorri nirekin. Zatozte Alde Zaharreko haragitegi honetara. Egon lasai, ez lotsatu: zutabe irakurleak ikustezinak zarete. Atso asko ezta? Zaharrak eta eriak. Heriotza da nagusi haragitegian. Sartu, sartu. Begira. Aditu. Ikusten? Hemen ez dago zenbakia eskuratu beharrik; gure izenekin izendatzen gaituzte. Nirea «michico» da. Oraindik itxaron egin beharko dugu, Mercedes atenditzen ari baitira. Entzun.

-Solomoa esan didazu Mercedes? -Bai, solomoa. Ba... horixe: birika bakarrean ez baikik eta bietan minbizia zuela esan zioten.

-Ui, Jesus! Manolori gauza bera. -Zenbat nahi duzu? -Bost xafila edo. Zein Manolo? -Concharena. -A hori!

Ez larritu. Hau normala da. Kezkatuaren edo penatuaren aurpegia jartzea ez da beharrezkoa hemen. Ikusiko duzu noia hemendik gutxira baten batek txistea egin eta nola denek irri egingo duten. Oilo bat pusketan prestatzen ari ziren bitartean mediku ebakuntza osoa aditza tokatu zait behin baino gehiagotan. Lasai. Gehientsuenetan minbizia da gai nagusia..., eta Alzheimerra... bai, azken hau hedatua dago oso. Emakume hauen gizonak nebulosoak dira. Ia-ia gas bihurtu dira.

-Nireak periodikua eta guzti irakurtzen du. -Bai zera, ez da deustaz enteratuko! -Beno kontua da segituan ahazten duela dena!

Ikusten. Barrezka ari dira. Orain sartu dena ez dut ezagutzen. Hemen inork ez du «azkena?-servidora» formula erabiltzen. Gauza kuriosoa da hau ere. «Ea michico, zer nahi duzu?». Epa, nire txanda da! «Zera... urdaiazpikoa nahi dut», esaten dut, eta gero... gero aspaldidanik esan nahi nuena botatzen dut: «Ba... neri ekografia bat egin didate, eta besikulan harritxo bat aurkitu dute». Begira itzazue emakume hauen aurpegia. Baietz egiten dute buruarekin. Harria besikulan, ongi ezagutzen duten gaia da. «Hori orain asteburu batean kentzen dizute», esaten du Mercedesasek. «Gaixoa, eta min haundia egiten dizu?», galdetzen dit harakinak. «Kristona», erantzuten dut nik pozik. Pozik, tribuan ametitu nautilako. Pozik, gaurtik aurrera taldearen barruan gainontzekoen pare egongo naizelako, hemen, heriotzaren haragitegian.

Iruñea-Baiona autobidea zenbat buru, hainbat aburu

Leiak eta Iparraldeko auzapezek errepidea hobetzeko eskatzen dute, eta Hegoaldean iritziak kontrajarriak dira

Luzaideko herritik pasako litzateke autobidea.
● MIKEL SAIZ



Nafarroako Gobernuak eta Atlantikoetako Kontseilu Nagusiak berriki Pauen aurkeztutako mugaz gaindiko autobidearen proiektuak hainbat iritzi sortu ditu Hegoaldean zein Iparraldean. Ustez bidea iraganen den herrietako auzapez askok eta Leia taldeak informazio falta salatu dute.

LEIA, LEKUKO EKONOMIA ETA INGURUMENAREN Alde elkarteak, joan den urtean sortu zen, autobidearen proiektuaren aurka borrokatzeko. Elkarteak arrazoi franko zituen proiektua salatzeko, eta berriro errepikatzen zuten joan den ostiralean. Hain zuzen, Leia elkarteak hirugarren biltzar garrantzitsua egin zuen Anhaizen (Nafarroa Beherea).

Lehen bilkura 1998ko apirilaren 3an egin zuen, Baigorri, Leia elkarteak sortzeko. Joan den irailan, berriz, norabide nagusiak finkatzeko bildu ziren elkarteak kideak. Hirugarren hitzordu garrantzitsua bigarren inkestaren emaitzak zabaltzeko finkatu zuten, bai eta datorren hilabeteetako ardatz nagusiak elkarrekin zehazteko ere.

Trafiko handiko bidearen proiektua aurreratzen ari



Aurizberriko Urrobi kanpina.
● MIKEL SAIZ

delarik, gauza franko zitzuten kideek aipatzeko. Alabaina, bilkura hasi baino lehen, Mixel Ernaga elkarteak lehendakariak sarrera luzea egin zuen bildutako lagunen aurrean.

Hain zuzen, trafiko handiko bidearen borroka ikuspuntu orokor batean kokatu nahi zuen, eta tokiko interes arruntak baztertu. «Garraloaren arazoa larria da, eta gogoeta orokorra eta zabala izan behar dugu. Urte guziz, merkantzien garraioa %10 goratzen da, eta gizartearen hautuaren ondorioa baizik ez da. Errentagarritasuna, mozkina, produktibitatea, fluxu laburrak hitzak erabiltzen diren bitartean, garraioaren erokeria handituz doa. Leiak ez du mundua aldatzea finkatu helburutzat, baina ez da dudarik erantzun behar diogula arazo larriari. Eza errateko, aski errateko gaitasuna erakutsi beharko dugu. Ez badugu benetako lurraren suntsitzea ikusi nahi, ez dezakegu Euskal Herria betonatzera utzi. Ekonomiaren logikari ongi izatearen logika inposatu behar diogu».

Hautu ekonomikoaren ondorioen aurka borrokatzeaz gain, Leia elkarteak funtsezko demokrazia arazoa ere pausatu nahi lukeela oroitarazi zuen biltzar nagusiak. Izan ere, sekreturik handiena izan da proiektuaren gainean eta, taldea sortu denetik, zailtasun larriak izan

Hegoaldean iritzin jarriak daude

Pirinioak zeharkatuko dituen autobidearen proposamena Nafarroako Gobernuak egin bazuen ere, Hegoaldean afera motelago doa eta, itxuraz, ez du hainbesteko zalaparta sortu. Josepe Irigarai LEIA taldeko auriztarra, baizik eta Lisboa, Madril eta Paris hobekiago eta azkarrago lotzeko.

«Ez dugu ezta lehen txostena ere jaso, eta esaten digute autobidea egin ezean ingurua hil egingen dela. Jende gehiago etorriko dela eta Aurizberri egiten ari den industrialdera industria etorriko dela», azaldu digu Irigarai. Mugaz bestalde autobidearen kontrako batzuk badira, baina Nafarroa Garaian udal asko alde azaldu dira: Esteribar, Erroibar, Aezkoako Juntako presidentea, Auritz eta Orreaga, esaterako. Inguruak, bizirik jarraitu nahi badu, komunikazio azkar eta onak behar dituela argudiatu dute. Dena dela, hor ere informazio falta dagoela salatu dute.

LEIAK informazio bilerak egin ditu herri batzuetan, eta alkateekin mintzatzen ere salatu da, baina askok entzungor egin dute. Ildo horretan, Anabel Elizondo Luzaideko alkateak esan du aspaldian egin zela lehen bilera eta han bi aldean artean egiten ziren bilera guztietan herriaren ordezkariak izan behar zutela hitzartu zutela, hau da, bi alkate. Bat izan behar zuen Esteri-

barkoa eta bestelatu joango zuten: Aezkoako alkatea, Aurizko alkatea, Orreaga Luzaideko alkatea. «Esteribar izan da, baina aldatuz jostamen alkatea ez da inoiz izan, bilerak paratu eta gero, baina beste bat Jose Ignazio kontseilariarekin eta alkateekin», gaineratu du. Elkarrekin duenez, bera ez dute inoiz bilerak horietara eta ez dutelarik jaso. Luzaideko alkateak, horrelako proiektuak zaituzten dute, eta batzuen kontra jarritzen dituzte. «Herriaren interesak ez dira merituak. Informazio falta dago, inatuta sentitzen gara, batek beste alkateen

Alkateen artean ez ezik, herriaren artean ere iritziak ez dagoz bat. Pirinioetako alde honetan Iruñerri bitartean 13.000 lagun bizi dira, eta erdiak erretiroan dira. Askok ez dute irizirik eman nahi bide berria ikusi ere

ez dutelako egin. Jose Felix Martinez Aurizberriko Urrobi kanpeneko jabea haserre dago. «Administrazioak egiten duen beste edozein azpiegituratan bezala, informazioa desinformazioa izaten da. Ez dago informaziorik. Inguru honetan aurkakoak zein aldekoak daude». Bere iritzia, hortik autobidea egin «astakeria» da. «Negozio bat daukat, baina inguruak ordaindu beharreko prezio oso altua da. Bailara bitan banatuko du. Jendeak gutxi hitz egiten du eta Udalak ez du informatzen, ez dagoelako deus erabakirik. Bitartean, proiektuak aurrera doaz eta egun jakin batean erabakita egonen da gure parte hartu gabe», gaineratu du.



Joxepe Irigarai, Hegoaldeko LEIA taldeko kidea eta auriztarra.
● MIKEL SAIZ

ditu proiektuaren berri izateko. Ani Costera elkarteak kideak.

Ikerketetan eskasiak

Lekuko ekonomia garatzeaz gain, ingurumena zaintzea da Leia elkartearen helburu nagusia. Eta Nafarroako Gobernuak eta Kontseilu Nagusiak aurkeztu duten proiektua kezka garria dela berretsi zuen Leia biltzar nagusiak. Elkarteak bi lehen inkestak hurbiletik ikertu ondotik, Beñat Errekalde kideak inkestaren eskas andana azpimarratu zituen. Haren aburuz, ikertzaileek nahitara baztertu dute bideak ingurumenari ekarriko dizkion kalteak neurtzea. «Lehen faseko inkestak ez du sekula aipatzen ibilgailuen trafikoko kutsadura larritu duela. Gaur egun, 2010ean onartuko den gas karbonikoa baino gehiago dago Frantziako, eta egoera areago okertuko da horrelako proiektuekin», azpimarratu zuen.

Inkestaren beste eskas anitz direla gaineratu zuen: Narbonne-Bartzelona AHTren bidea baizik ez du aipatzen, Vignemale mendiaran azpiñan egin daitekeen tunela ez du aipatzen. «Pau Canfranc trenbidearen

bidea irekitzeko eskakizuna pausatua izan da azken urteetan, eta oroitzen behar da bi mila milioi libera kostako litzatekeela bidea egokitzea [50.000 milioi pezeta], hots, azaldutako proiektu merkeenaren prezioa», gaineratu zuen.

Hala ere, Errekaldetik adierazi zuenez, ustekaberik larriena da ohartzea inkestak egileek ez dutela batere kontuan hartu Nafarroa Beherea nekazaritza eremua dela. «Nafarroako laborantzako egiturak aldekatuak izan badira ere, ikertzaileak ez dira mintzatu departamenduko Laborantza Ganberarekin», azpimarratu zuen.

Informaziorik eza

Inkestaren eskasiak baino gehiago, Iparraldeko zein Hegoaldeko alkate batzuek, eskatu arren, informaziorik ez dutela jasotzen salatu dute. Leia taldeak ere hori bera nabaritu du.

Jean Mixel Garat Azkarateko alkateak dioenez, bide hori ez da euren zatitza, baizik eta trafiko handia pasatzeko. «Oso gaizki ikusten dugu. Ekonomia aldetik traba gehiago ukanen dugu onurak baino. Autobide batek ez du aberastuko ingurua, baizik eta fiteago gerarazi. Barnealdean ekonomikoki oso pobreak gara», esan du.

Garat auzapezaren irudiki, badira aspaldian aipatzen diren bideak, eta, autobidea baten beharra baino

Joxepe Irigarai:

«Ez dugu ezta lehen txostena ere jaso, eta esaten digute autobidea egin ezean ingurua hil egingen dela. Jende gehiago etorriko dela eta Aurizberri egiten ari den industrialdera industria etorriko dela».

gehiago, bi herrialdeen eta herrien arteko komunikazioak hobetu behar dira. «Behar da tokiko dinamika ukan hori bultzatzeko, eta ez dugu», dio penaturik. Informazioari dagokionez, auzapez moduan bilera bakarra izan omen zuten joan den uztailan Atlantikoko Kontseilu Nagusiko ordezkariekin, eta urtarrian egin zen eztabaidan parte hartuko zutela ziurtatu zieten, baina ez zuten eztabaidarik izan, ez eta txostenik jaso.

Hori dela eta, Leia aurkeztutako mozio bat sinatu dute 33 herririk: Aiziritze, Aldude, Anhaize, Arantsusi, Armendaritze, Arüe, Azkarate, Banka, Bastida, Behorlegi, Beskoitze, Donaxiti, Donazaharre, Duzunartze, Gamarte, Heleta, Hozta, Iholdi, Ibarla, Irulegi, Jutsi, Larzabale, Lekunberri, Mendibe, Orzaize, Suhuskune, Uharre-Hiri, Urepele, Zaro, Baigorriko haraneko herrien elkargoa eta Iholdiko kantonamenduko batzorde sindikala.

Mozioak hiru hauetako ematen ditu: argitasuna informazioa ematean; egiten diren eztabaidetan parte hartzea; eta autobiderik ez onartzea. Ildo beretik, azken txostenaren berri komunikabideen bidez izan dutela salatu dute.

Herriotako auzapezak eta Leiaokak kezkatuta daude, baina Michel Intxauspek, Kontseilu Nagusiaren Donibane-Garaziko eskualdeko ordezkariak, aztoratzeko arrazoirik ez dagoela dio. Intxauspek ziurtatu duenez, autobidea bidean solik egingen da, eta Nafarroa Beherean dagoen bidea bikoiztu besterik ez omen da egingen. Hori bai, herrietan udako eta merkatu egunetako auto ilarrek gerta ez daitezkeen saihebidetarako lur berrietan egingen direla esan du. «Nafarrak dira autobidea egitekoak: gurek auzapeza hobetu besterik ez dugu egingen, eta lau bidetako (bi eta bi) gaitzada egingen dugu», dio Intxauspek.

Era berean, proiektuak ongi aztertu behar direla esan du, eta horietako batek zer dioten ekarri du gogora: «Proiektuetako batek Irulegiko mahastiak dauden mendian lau kilometroko tunela egitea proposatzen du, eta hori ez da bidezkoa, Irulegiko arnoa egiten duen enpresa kinka larrian utziko lukeelako».

Bestalde, ez du uste informazioa falta denik. Nafarroako Gobernuaren eta Kontseilu Nagusiaren arteko afera izanik, bi aldeak elkarteak kosta egingen dela dio, eta hil honetan bertan emanen zaiela udal guztiei ikerketa taldeak egindako azken txostena; hau da, zein bide aukera dauden agertzen duena, eta, era berean, informatzeko bilera egingen dela, seguruenik Donapaulen. Hitzorduan Jean Lasserre eta Intxauspe auzapezekin eta elkarteekin bilduko dira. Hala ere, bilera noiz izanen den oraindik zehazteko dago.

→ Irene Arrizurieta / Lutxi Fourcade

Joxemiel Bidador

Sorregietaren astearen nahas-mahasiak

Gutxi da Sorregietari buruz iritsi zaiguna, ezpada berak izkiriatu zituen lanak, bestalde ere, nahikoa eskuragaitzak zaizkigunak; tolosar honek ondu zuen euskararen eta euskaldunen apologia astearen antolakuntzaren barruan garatuta datorkigu, eta arras harrigarria izanagatik ere, guztiz burutsua eta berria gertatzen da



ASTARLOAREN GERIZPEAN ITZALITako apologista genuen Tomas Sorregieta Arribillaga tolosarra; zein urtetan jalo zen ez badakigun arren, ezkongabeko gurasoengandik sorturiko semea zelako testigantza iritsi zaigu: «hijo natural de Pedro Miguel y María Ana de Arribillaga, solteros, naturales de Tolosa» 1781.ean apezturik, Asteasun, Albistur eta Azedoko kapelaua izan zen, Tolosan bizi zelarik. Gurean ezagun gerta badaiteke, 1804.ean Iruñeko Longas etxean argitara eman zuen liburu bikoitz batengatik da, hau da, *Semana hispano bascongada, la única de la Europa y la más antigua del orbe con dos suplementos de otros ciclos y etimologías bascongadas*, eta honen bigarren zatia den *Monumentos del bascuence o prosecución de los precedentes del astea, eguna, illá, urteá y demás*, Gipuzkoako Probintziari eskaini zizkiona; lan honen argitaratzeko baimena 1802.eko azaroaren 15ean sinatu zuen Nafarroako probisoreak, Jose Maria Larunbe karmeldarrak eginiko onarpena ikuskatu ostean, alabaina, Gipuzkoako agintariek Astarloa bera izendatu zuten Sorregietaren libururako aztertzaile; hortaz, tolosarrak durangarrari 1802.eko maiatzaren 10ean Madrilera igorri gutunean ospe handiko euskalariaren onespina galdetzen zuen, alta, erdietsi ez zuen gauza, bada, Sorregietaren izkribua behin irakurriz gero, Astarloak, zeharo holakaturik, ukatu zion oniritzia. Areago, Sorregietaren lana karrikaratu bezain fite, Astarloak erantzun zion Sorregietari 1804.eko martxoaren 12ko *El Diario de Madrid* egunkaritik, *El Español* ezizenaren azpian agerturiko artikulua baten bitartez; nonbait, huraxe gutxi baillitza, oraino 46

orrialdeko beste idazki bat atera zuen Madrilén, ber urtean eta egile-izenik gabekoa, *Carta de un bascongado al señor d. Tomás de Sorregieta advirtiéndole de varias equivocaciones que ha padecido en su obra*. Sorregietak, arras sumindurik, Astarloari erantzuna agertarazi zuen hurrengo urtean, *Triunfo de la semana hispano-bascongada y del bascuence contra varios censores enmascarados, en tres cartas dirigidas a los literatos españoles*, Madrilgo lbarrarenean; honakoa Tolosan 1805.eko maiatzaren 6an, ekainaren 2an eta abuztuaren 24an sinaturiko hiru eskutitz dira, non Astarloa «peor y más encarnizado censor» deitu zuen.

Sorregietaren lana euskal astearen perfekzioa eta 4.000 urteko aintzinitatea frogatzeko saio undats bezain nahasgarria dugu; hebraitarren zein egipziarren asteekiko euskal asteak duen antzekotasuna azpimarratuz, aste astronomikoarekin duen baterakidetasuna eta euskaldunen asteak duen proportzio kuarternarioko funtsa musikala goratu zuen, euskal asteak etorki jainkotiarra duelako segurtamena ziurtatu zigularik, bada, euskaldunoi, erlijio naturalarekin batera, benetako Jaungoikoak ezagutarazirikotzat baltzuen.

Interesekoa zaiguke 50 orrialdetik aurrera garatzen den VIII. kapitulua, hots, *Del fundamento y sistema músico que se halla en la proporción cuaternaria* izenburuaren azpian dagoena, honetan egileak zioskunaren bitxiarengatik. Sorregietaren aburuz, euskal astean aisa aztaka daitezke Dion Casio historialari erromatarren irakaspenera zaharrak: «Del mismo modo que Saturno, que era el primer

planeta, se tomaba en esta de Dion Casio por principio de las cuartas músicas, así también en aquella bascongada se tomaba el primer espacio seminario o día que era astelena por principio de las siete cuartas músicas, de donde se derivan los siete tonos diatónicos o escala diatónica. Ahora pues, si se hace principio en astelena que equivale al Si, voz música de los modernos, y se toman de cuatro en cuatro los espacios semanales de la primitiva semana según lo dicho de esta manera: astelena, astearte, asteazkena, osteguna, ostirala, larunbata e igandea; o las cuartas, Si, Mi, La, Re, Sol, Ut, Fa por ellas representadas, acercándolas por medio de octavas, se tendrán los siete tonos del sistema diatónico, Si, Ut, Re, Mi, Fa, Sol, La (...). En consecuencia, ¿que aprecio no merece tan estimable monumento patrio bascongado, y que veneración y grata memoria no se debe a los antiguos bascongados autores de él por tan lacónica, docta, y significativa instrucción que en él nos dejaron».

Sorregietak, azken finean, antzinekoarekin lotura egin gura zuen, hau da, aztura eta ideia berrien kontra joaz, aintzinitatearen kulturarekin bat egitea; bere euskal astearen apologian, beraz, eta ohi denez, betiko moldeen aldeko apologia zegoen tolosarrak, tradizionalismo eta erregimen zaharreko politikaren aldeko saioa. Musikaren arloan, kontrapuntoaren aurkari tematia eta aintzinitate klasikoaren musikaren aldeko sutsua agertzen zitzaigun: «La música de hoy por más pianos, órganos a la moda, e instrumentos de hábil manufactura que cada día se inventan, y por más que la voz humana se esfuerce en concordarse unisónamente o en contrapunto con ellas, siempre será bárbara, desnaturalizada y desconcertada por defectuosos principios y ci- mientos».



Patziku Perurena

Zerria «modelo» ehun urtera

BATZUTAN, HERRIALDE berri batean munduko zabaleko jende zaborreri guzia biltzen da, eta orduan jendaje harroputz, barrenuts, eta gizagihar zaildurik gabekoa sortzen da. Amerikarra.

Tximino imitatzaile gradutik ez da pasa amerikarra. Ez dut motibu partikularrik amerikarrak gorroto izateko; haienganako arbuioa, jende taiuko gizon oso bat bakarrik ere ez ezagutu izanetik datorrit.

Askotan Europako edozein herriskatan harrapatzen duzu gizon bat, gizatasunik bixienaz molde-tua, eta usterik gutxiena duzun momentuan egiten duzu bat haren herriko hizkera eta martingala halamodukoekin.

Baina gizatasun zaildu hone-n sekulan ez amerikarrak; batean odolgoeak jotako zakur amorratu gisan azalduko zaizu; bestean dantzarin bat bezain ipurtarin; eta hurrengoan, haundiuste gizen nazkante batekin.

Hispanoamerikarrei diedan ezinikusi berbera diet haien literatura lanei. Amerikarrei leitu diedan guzia, Unamunoren laudorio interesatuen damurako, melenga eta giharrik gabea da. Holako snobismo ziztrin eta haizazua ezin dut eraman.

Askok diote, guk, espainiarrok, politikagatik bederen balakatu egin behar genituzkela amerikarrak, (...) bai, herri zahar eta zibilizatuetakojendeak estimatzen ditu oraindik balakuak eta kumplimentuak; zer esan ordea argentinarr bati, nahiko garia eta behikia baduelako, munduko herririk gorrena delako uste osoan badago?.

Pioentzat «vacunoa» da 1917ko amerikarren aberetasuna, baina, zerri antropoidea zen batipat amerikarra joan den mende bukaeran guretzat. Auspoaren sail ttikian «Kubako Gerra» leitzea aski, giputz euskaldun espainizale amorratuak nola mintzo diren ikusteko. Andoaingo Udalak etxe guziei euskaraz pasa zien harako eskea 1898ko maiatzean:

«Orain lareun urte bizi ziran naziyo ortako jendeak zentzu gabe, salbaje moduan, lau oñekoen gisa, eta gure Españaren lagun-

tzaz argitu ziran, gizon egin ziran; zer pagu emateko? Ongi egiña aztu eta billautasun aundienarekin lagundu diyoe ixilka Kubako insurrektoai, gure mutill onak, gure gazteriya an ill dedin; (...) español leiala zeran partetik, erregutzen dizugu eman dezazula zer-bait».

Eta bertso asko bide beretik doaz:

Norte Amerikako txerri zar trasteak berentzat nai dituzte gure parajeak...

Ez gerade jarriko zerriyen mendean odol tanto bakarria daukagun artean...

Aita Zavalak hala dio: «zenbait bertso salletan, ageri agerian txerri- rritat tratatzen dira. Itxuskeri ori nondik datorren, Marqués de Lozoyak argituko digu, bere «Historia de España»-n:

«Españiar erdimoduko baten- tzat 1890ean, Iparramerika ez zen zerrikiaren industriatik aber- rastutako merkatarri saldoa bai- zik. Oihartzun izugarria piztu bai- tzuten Txikagoko zerri hiltegiek. Hala, prentsan, batez ere joera li- beralekoan, karikaturistek zerria zeukaten pertsonai amerikartzat: «Tio Sam» galtzarbetan zerri bana zuela; zerri desfiteak bandera amerikarraz tatuatuak».

Orduko aurrerapenen txistea ere ezaguna dugu:

- Zerri osoa zulo batetik sartu, eta bestetik ziztor egiña ateratzen ditek.

- Hori da aurrerapena! Hemen, zulo batetik ziztorra sartu eta zulo beretik gizon egiña ateratzen diagu, mundua mundu denetik!

Ez da ezker edo eskuinik geldit- zen munduan, txiste xoragarri horretzek erdibitzen ditu gure muinak. Progreso zerri mesura- gabea, eta gizatasun xuhur es- keptikoa. Mundu guziak bigarren partea omen du gogoko eta hori defenditzen, baina, aurrenekoan abereturik bizi da. Beraz, gizona, kurrinka egiten dakien zerria da, hobenean, eta gizadi osoa gara ja amerikar. Horregatik diot gorroto nik nere buruari.

Ziria

• Motxorrosolo •

Victor Manuel

BOTEREAREN ARRIMUA BILATU IZAN DU BETI. GOSE GREBETAN ARGALTZEN EZ denak bere ibilbidearen azken geltokia aski hurbil du. Aurki gehiengo, zenbatekoa izanen den ezin jakin, lortuko duen alderdian sarbidea eskatu baitu. Hasmentan ukoa jaso badu ere, azken urteotan egindako zerbitzua aintzat hartuta, hausteskundeen ondoren erant- zun egokia jasoko duela ziurtatu diote. Victor Manuelek, aski fite, egun defendatzen dituen ideiekin bat datorren karneta izanen du.

Allen Josephs

Ikertzailea

«Euskal Herria azken toki benetakotzat zuen Hemingwayk»

Hemingway eta zezenketak izeneko hitzaldia eman zuen joan den ostiralean Allen Josephs irakasle eta ikerle estatu batuarrak, Nobel saridunaren inguruan antolatutako jardunaldien barruan. Sanferminak nazioartean ezagutarazi zituen idazlearen lanak zezenketekin duen harremana azpimarratu zuen Josephsek.

ZEZENZALEA DA, EZ DA DUDARIK. Bezperan aurkeztutako zezenketa guztien kartelak buruz dakizki, eta ez du beste minik azkenaurreko eguneko galdu egingo duela baino.

■ **Gauza jakina da Hemingwayri asko gustatzen zitzaiola zezenketen mundua. Baina zalea izateaz gain, bazekien, ulertzen zuen ondo?**

Zalea zela ez da dudarik; zezenketaz ulertzen ote zuen, hori besterik da. Badira ezetz esaten dutenak; Domingui- nek, esate baterako, ideiarik ere ez zuela zioen. Baina hori ez da, nire ustetan, benetako galdera. Garbi dago guk baino gutxiago zekiela, akaso guk gehiago ikusi dugulako, baina garrantzitsuena da berak sentitu eta bizi izan zuela zezenketa inongo amerikarrek ordu arte ez bezala, berak zabaldu zituela ateak gero iritsi zirentzat. Berak ulertu zuen, edo saiatu zen ulertzen gutxienez, zezenaren mundua. Gero konturatu zen hori zela bizitza guztian bilatu izan zuena, horixe nahi zuela. Hor ikusi zituen gerra eta bizia elkarren aurrean, borrokan, eta berak bazekien hori, heriotzarainoko arriskua, berak «grazia presiopean» deitzen zuena, gerran bakarrik aurki daitekeela, eta horregatik, zezenketetan ere topatu zuenean, zaletu egin zen, eta jarraitu zuen azken eguna arte.

■ **Nola sartu zen hainbeste, iritsi zen lehen egunetik?**

Hori azaltzen saiatu naiz nire hitzaldian. Esan behar da Hemingway, Iruñera iritsi ze-

nean, Italiatik zetorrela, Lehen Mundu Gerran borrokatu zela, eta horrek markatu egin zuela, asko. Berak zioen Italia zela ordu arte deskubritu zuen gauzarik handiena, heriotzatik gertu egon zelako eta horregatik guztiarengatik. Baina Nafarroara iritsi zenean, aurreko guztia txiki gelditu zen. Oso hunkituta joan zen hemendik, eta euskaldunak, Euskal Herria, gelditzen zen azken toki benetakoa zela esan zuen orduetik aurrera askotan.

■ **Toreroen artean, bereziki Antonio Ordoñez miretsi izan zuen beti, eta lagun minak ziren.**

Bai. 1953an Iruñera itzuli zenean -36ko gerraren ondorengatik ez baitzen hemen izan-, orduan ezagutu zuen Ordoñez, eta, ikusi zuen lehen zezenketan, esan zion aitaren maila onenetik gotti egon zela. Hemingwayk asko miretsi zuen Ordoñezen aita, baina egun inork ez du dudan jarritzen Antonio hobea izan zela aita baino. Hortik aurrera lagun minak izan ziren beti.

■ **Esan daiteke, beraz, zezenak izan zirela Hemingwayren zaletasun handiena, eta Iruñean deskubritu zituela, baina ez bide zuen hondar garrantzitsurik utzi gero, oso idazle gutxi zaletu baitira.**

Literatura anglosaxoian, betiko topikoak erabiltzen ari dira oraindik zezenekin: kurdela dela, odoltsua, ezin dela hor inolako arterik ikusi... Baina zezenketak oso konplikatuak dira, oso. Bazegoen filosofo bat esaten zuena filo-



OSKAR MONTERO

«Euskal Herrira etorri gabe ia 25 urte eman ondoren 1953an itzuli zenean, Hemingwayk ikusmin handia zuen, zer ikusiko ote zuen, jaiak aldatuta egongo ote ziren, baina dena utzi zuen bezala topatu zuen»

sofia bera baino konplikatuagoa zela, dena dagoelako hor. Dena. Euskal Herrira etorri gabe ia 25 urte eman ondoren 1953an itzuli zenean, Hemingwayk ikusmin handia zeukan zer ikusiko ote zuen, jaiak aldatuta egongo ote ziren, baina utzi zuen bezala topatu zuen dena: beste torea-tzaileak, beste izenak; hori besterik ez. Jakina, oraingoa ikusi izan balu...! Baina onartu behar da oso gauza gutxi aldatu direla jaietan, beti izan delako horrela.

■ **Iruñean amerikarrek in-**

da halako mesfidantza, ez direlako jaiaren muinean sartzen, eta lau topikorekin gelditzen direlako.

Badira jaiak ulertzen saiatu diren amerikar asko, baina egia da gehienek ez dutela ulertzen, eta hori gertatzen da berez oso zaila delako. Baita jaiak zibila bera ere. Finean, ez dute ulertzen hau jai erlijioso dela, eta ez dute errespetatzen. Hori tamalgarria da, baina hemengo batzuek ere ez dute errespetatzen.

■ **Zer-nola gogoratzen ari da EEBBetan idazlearen jai-**

soslaia

Hemingway Fundazioko presidentea izan da hiru urtez Allen Josephs, eta, egun, idazlearen lanari buruz hitzaldiak eta ikerketa franko koordinatzen ditu. Ez ditu inoiz galtzen sanferminak, eta aurten uztailearen 13ra arte geldituko da bertan, gero ardura hartu beharko baitu Estatu Batuetan, idazlearen ehungarren urteurrena dela-eta egin behar den omenaldian. «Aurtengo zezenketarik onena galduko dut!», azpimarratu du.

Onartzen duenez, gazte garaian ez zuen maite irakurtzea, «soilik Shakespeare», baina Iruñera etorri zen eta hemen *The sun also rises* nobela famatua irakurri zuen. «Ez nintzen etorri Iruñera Hemingway irakurri nuelako, askok egiten duten bezala, alderantziz baizik. Hau da, idazlea Iruñean egon nintzelako ezagutu nuen».

Geroztik Euskal Herriaren miresle sutsua da. Berak dioenez, Hemingwayk ere izugarri maite zuen Euskal Herria, «berak beste probintziak Nafarroa barruan sartzen zituen, eta ez alderantziz». Dio idazlearen nobelen itzulpenetan ezin jaso daitezkeen fiabardurek bereizi egiten dituztela franko ingelesezko eta gaztelaniazko lanak.

tzaren mendeurrena? Badirudi urteekin batera txikiagotzen ari dela haren lanaren garrantzia.

Oso ondo gertatzen ari da dena, eta duela gutxi honi buruz egin zen jardunaldi garrantzitsu batean, Nobel sari-dun zenbaitekin, oso hitz laudorotsuak esan ziren. Deret Walcotttek, esate baterako, esan zuen Danteren moduko poesia dela harena... Badira asko kritikatzeko dutenak, baina bigarren mailako idazleak dira, haren tokia hartu nahiko luketenak. Nire ustetan, Shakespeareren ondorengotik idazle handiena bera izan da.

→ Alberto Barandiaran



Nafar Kronika

Pello Goñi

Hauteskundeak

Gaur etxeko estudioko biztanle guztiak deitu ditut batzar batera, hauteskunde-giroaren inguruko azterketa egiteko tenorean lagun diezadaten. Pixkanaka gelako txoko guztietatik fauna bitxia hasi da ateratzen, eta Atxagaren letrak balira bezala erantzun txintxo eman diote hitzorduari. Luzio A. Oneka maisu zaharra mintzo da lehen-dabizi: «Batuetan gorrarena egin behar duzu maite dituzunen aitzinean ere: asmo onez gauza txarrak eskatzen baitzikizute». Politikoki zuzenegia iruditu zaio lehen ideia hori Oskar Bildeondo hausleari, eta hitza ongi kargatutakoan hauxe bota du: «Bakarrik ergelak ematen dutenek erdiesen dute Komunen Ganberara sartzea; eta bakarrik ergelak direnak nagusitzen dira bertan». Eztabaidak Baltasar Graziandiarren interesa piztu du. Graziandia serio-serio jarri eta honakoa esan du pilota hautesleena aldera botata: «Mmmm... bada jende aunitz azkarra eta zorrotza dena, iritzi zehatza, ikasketak eta kultura atsegin dituena, baina hautatzeko tenorean kale egiten duena: beti txarrenarekin bat dator». Isilune baten ondotik, norbait eztulka hasi da txanda eskatu nahiko balu bezala. Txominauerren izpiritu fina da. Aurrera Arthur, bidea libre duzu eta. «Mila ezker... barkatu, esker. Nire ustez, honelakoetan, pertsona barregarri bilakatzen gaituena zera da, unean uneko orainari ematen diogun tratamendu serioa. Gutxi dira, duda gabetan, hori gainditu eta pertsonaia barregarriak izatetik barre egiten duten pertsonaia izatera igaro diren izpirituak». Hitz hauek buruan bueltaka ditugula, elkarri begira geratu gara denok.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Iruñea:** Gozategi taldearen eta Kepa Junkeraren kontzertua izanen da gaur, 22:00, Anaitasuna kiroldegian.
- **Iruñea:** Jabier Muguruzaren emanaldia izanen da datorren asteazkenean, Erraldioen Txokoa, 20:30etan.
- **Gares:** Anparanoia eta Los Rabanes taldeek kontzertua eskainiko dute 23:00etan Gares aretoan.
- **Iruñea:** Iñaki Askunze Quarter-ek jazz kontzertua eskainiko du datorren asteazkenean, 23:00etan, O'Connor's tabernan.
- **Iruñea:** Andres Carramarro gitarra jole flamenkoak kontzertua eskainiko du datorren asteazkenean, 20:00etan, Gaiarre antzokian.
- **Iruñea:** Sarasate Orkestrak kontzertua eskainiko du gaur, 20:00etan, Gaiarre Antzokian.

ERAKUSKETAK

- **Iruñea:** Helene Rooryken lanak ikus daitezke ekainaren 30era arte Pintzel galerian.
- **Iruñea:** Pedro Sauraren lanak ikus daitezke Azul galerian hilaeren bukaera arte.

ANTZERKIA

- **Ituren:** T'Ombigo Teatrok *Ahots gabeko aitona jai* lana oholtzaratuko du etzi, 18:00etan, frontoian.
- **Zangoza:** La Mar de Marionetas taldeak *Los dundis siderales* lana taularatuko du bihar, 18:30etan, Karmengo Entzuetegian.

BESTELAKOAK

- **Murugarren:** Nafarroako Eskolarteko Bertsolarien Txapelketa izango da bihar Alдайondo jatetxean 11:30etan. Bertsoan hauek ariko dira: Erika Lagoma, Xabier Terre-

ros, Ekhiñe Etxepeteleku, Hodel Lujanbio, Joseba Beltza eta Eneko Lazkoz. Ondoren bazkaria izanen dute.

- **Castejon:** Nafarroako Jotaren I. Lehiaketa antolatu du herriko jota eskolak ekainaren 19rako. Partehartzaileak bikoteak edo bakarlariak izan daitezke, eta adinaren arabera hiru sailetan banatuko dira: helduak, gazteak eta haurrak. Lehiakideek he-

rriko Kultur Etxean beranduenez txapelketa baino ordu bat lehenago eman behar dute izena. Lehiaketa Espainiako plazan ospatuko da 21:00etan.

- **Lakuntza:** Etzi XII. Lakuntzako Guardetxe Igoera egingo da 10:30etan. Irteera herriko plazan egingen dute lasterkariak, eta izena ere lasterketa hasi baino lehen hartan eman beharko dute.

► **Iruñerria:** Iruñerriko Mankomunitateak bigarren urtekanpoan egingen den pintura lehiaketa antolatu du. Lehiaketa etzi egingen da eta hamasei urtez goiko lagunek parte hartu ahal izanen dute. Lanak Takonerako parkean egin behar dira 10:00etatik 18:00ak arte. Antolatzaileek margotzeko materiala eta otordua eskainiko dute.

Arestiren liburutegia

Castelao nos



—¿E meu irmanciño terá de saír da Terra para ganallo pan?

Eta ene nebatxoac Herritik atera beharko du ogi-bila?